

## ETORKIZUNARI BEGIRA

Azpeitiko Gure esku dago taldeak ez dio beldurrik geroari, aukera bat da. Euskal Herriari dagokiona aitortzeko argi izpia **20**

**Dr. ANTONIO RAFANIELLO HORTZ KLINIKA**

**TITANIOZKO  
INPLANTEA**  
295 € UK hasita

Azpeitian 25 urtean egindako ibilbidearen bermea daukagu. Aurrekontuak eskualdearen egoerara moldatzen ditugu, beharpen eta promozio garrantzitsuak eskainiz.



Aseguruekin lan egiten dugu - Ordainketarako erraztasunak - Finantziazio pertsonalizatua

Enparan kalea, 8-1. Azpeitia

Tel.: 943 816736

[www.antoniorafaniello.com](http://www.antoniorafaniello.com)

**2014**an ere  
**ZURE ONDOAN  
EGONGO GARA**

**URTE BERRI ON!**

**KALITATEA  
MODU ONEAN  
ESKAITZEN**



**Miele**

**MILAR  
LARRAMENDI**



**IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN**

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97



# TXETXU URBIETA - JUAN MARI OLAIZOLA

Diego Garcia zenaren lagunak

## “Bihotzetik idatzitako testigantzak jaso ditugu”

Diego Garciari buruzko liburua eta webgunea argitara emango dituzte, ekainean. Egitasmoa prestatzen ari dira Urbietta eta Olaizola, besteak beste. 📝📷 A. Agirrezabala

**L**agun mina zuten Diego Garcia (Azkoitia, 1961-2001), haren bidelagun eta makulu izan ziren Juan Mari Olaizola masajista eta Txetxu Urbietta kazetaria. Atleta eta pertsona bezala Diego zer izan zen geroran ere jendeak jakin dezan, omenaldi bezala liburua eta webgunea ari dira prestatzen.

**Martxoaren 31n 13 urte bete-ko dira Diego Garcia hil zela. Zuek, ordea, beste mugarri bat hartu duzue aitzakia bezala liburua argitaratzeko.**

**Txetxu Urbietta:** Diegorekin zorbak bagenuela sentitzen genuen, baina alperrak ere bagara eta beti utzi eta utzi... Azkenean, Juanmari latigoa pixka bat astindu du eta aitzakia bat bilatu dugu: aur-

ten 20 urte beteko dira Helsinkin mundu guztiak gogoratzen duen podium hura lortu zutela: Martin Fiz lehenen, Diego bigarren eta Alberto Juzgado hirugarren. Aitzakia hori hartuta hasi ginen liburua prestatzen, gerora jendeak ere jakiteko Diego zein izan zen.

**Zeintzuk ari zarete proiektu honetan parte hartzen?**

**T. U.:** Diegoren familia tartean izatea nahi izan dugu eta proiektuan dira anaia Manuel eta Xanti Perez entrenatzailea. Laurok ondo ezagutzen dugu elkar, eta lauron artean ari gara antolatzen guztia.

**Zer moduz doa liburua?**

**T. U.:** Oso ondo. Eduki aldetik, ohiko biografia eta historia guztia kontatu beharrean, nahiago izan dugu Diegoren bizitzako momen-

tu garrantzitsuetan bere ondoan egon zirenen testigantzak jasotzea. Helburua da liburua irakurtzeko atsegina eta arina izatea. Liburua amaren kontaketaekin hasiko da eta guztira 40-50 lagunentestigantzak jasoko ditugu. Liburuak 150 orrialde inguru izango ditu eta bihotzetik idatzitako testuak dira. Hitzaurrea Andoni Egañak idatziko du eta azken kapitulua Juan Jose Ibarretxe lehendakariak. Diegoren idolorik handiena zen Egaña; Ibarretxe, berriz, Diego hil zen egunean, Arzallusen semearen edo alabaren ezkontzan zen Loiolan eta, albistea jakin zuenean boda laga eta ambulatiora etorri zen. Liburuaz gain, webgune indartsu bat ere jarri dugu martxan eta han argaz-

kiak, bideoak, Diegoren inguruan bilatu dugun guztia sartu dugu.

**Argitalpena egiteko gastuei nola egingo diezue aurre?**

**T. U.:** Krisia medio Azpeitia hilda dagoela entzun behar izan dugu, baina Diegok korrikan hasteko apustua Zubillagatik langabezian geratu zenean egin zuen eta, beno, krisiak ere bere gauza onak baditu eta guk bere omenez liburua krisi betean aterako dugu. Irabazi asmorik gabeko proiektua da; gutxi gorabehera, 12.000 euro kostako da, eta finantzazio guztia aurrez lortu dugu. Ez dugu nahi izan inorentzako pisua izatea, eta gastuei aurre egiten Azkoiti-Azpeitiko jendearen artean saiatu gara. Hala, alde batetik babesle indartsuak ditugu; 1.500



euroko mugarekin ekarpena egin dutenak. Gero, babesle edo laguntzaile arruntak –herriko saltokiak, tabernak...–; bi aukera dituzte: 50 eta 100 euroko laguntza ematea. Beste figura da liburuaren laguna egitea, 15 euro ordainduta *diegogarcia.info* ata-

rian. Aurkezpena ekainean izango da eta aurrez jasoko dute liburuaren etxean liburuaren lagun egin diren guztiek. Laguntzaile guztien aipamena liburuan eta webgunean egingo da. Azkoitiko eta Azpeitiko udaletan ere proiektua aurkeztu eta minuturik ere ez ge-

nuen behar izan baiezkoa jasotzeko. Momentuz, jendea oso ondo ari da erantzuten.

**J. O.:** Diegoren ama oso eskertuta dago bere semeaz egitera goazen liburuagatik. Diegok berak egin zuen bere izena, bere izenean badu lasterketa bat; irudi bat ere bai, eta orain haren oroimena liburu batean jasoko da, eta jendeari eskatuko nioke Diegoren izena errespetatzea.

**T. U.:** Amak gehiena apreziatzen duena da Diego maite zuen jendea ari dela liburuaren egiten.

**Zuek biok lagun mina zenuen Diego. Nondik nora ezagutu zenuen elkar?**

**Juanmari Olaizola:** Diego 14 urterekin itsasora joan zen arrantzale, Getariako ontzi batean, eta arrantza mundu hartatik ezagutu nuen. Korrikalaria baino gehiago harri-jasotzailea ematen zuen. Bizkar oso zabaleko mutil handia zen. Berarekin harremana serio hasi nuenean korrikan bazebilen, baina artean ez zen ezaguna. Ikusten zitzaion gaitasuna eta ezaugarriak bazituela. Aurreneko Behobia korritzera zihoala etorri zen kontsultara. Bigarren sailkatu zen eta orduan egin zen ezaguna.

**T. U.:** Lanbidez kazetaria izanda bere berri banuen, baina 1992ko Bartzelonako Joko Olinpikoen ondoren, afari batean ezagutu genuen elkar. Harrezkero, beti elkarrekin, koadrilakoak bezala izan gara. Harria baino gogorragoa zen. Parranda handiena botata ere hurrengo eguneko entrenamendua ez zuen sekula galduko.

Diego atleta izatea milagroa izan da. Inguruan txintxoena ere alproja galanta zuen. Azken finean, gero, inguru hori bera izan da atleta izaten lagundu ziona.

**J. O.:** Diegok borroka handia zuen atletismoaren eta lagunaren artean. aukeratzekoan. Beldurtzeko gaitasuna zuen baina, noski, iritsi behar zen lekura iristeko alderdi bat utzi beharra zuen, eta atletismoan zentratu. Xantik, entrenatzaileak, hala esan zidan behin: “Juanmari, bizitza honetan pena bat edukiko diagu. Eskuetan materiala eduki eta ez zioagu probeturik aterako”. Nik erantzun nion kontu hari erremedio bakarra bilatzen niola. Berak agintzen zizkion eguneroko hamar-hamabi kilometro haiek Diegorentzat jolas hutsa zirela, eta egurra eman behar zitzaioela. “Bai, baina erre egingo diagu, ordea!”, erantzun zidan. “Korrikan erretzen ez baduk, beste modu batera erreko duk”, bota nion. Entrenamenduak zorroztu eta orduan hasi zen benetako bidea.

**Profesional eta pertsona bezala Diegoren zer nabarmenduko zenukete?**

**J. O.:** Joaten zen lekuan umorerik ez zen faltako, eta urduritasun uneetan tentsioa puskatzen zekien. Amsterdameko azken maratoian egin zidaten elkarrizketan esan nuen atleta handi bat erretiratzera zihoala, baina jendeak gogoratuko zuela atletaz gain pertsona handi bat erretiratzen zelako. Lasterketatan, aurreneko momentutik, Diegok denentzako egingo zuen lana. Bai kalean, bai atletismoaren munduan, kontrariorik ez zuen; bazter guztietan laguna besterik ez zuen utzi.

**T. U.:** Atleta bezala oso eskuzabala, langilea eta zintzoa zen. Garbiegia. Karrera guztietan bere lanaz aprobetxatuko ziren, beti. Lasterketatan bere buruarekin oso segurua zen, oso kalkulatzailea, argia, eta nahiz eta besteentzako lana egin, egindako lanari zukua ateratzen bazekien. Eguneroko bizimoduan, berriz, bere

“Aurten 20 urte beteko dira Helsinkin podium hura Lortu zutela”

“Helburua da Liburu Leitzeko atsegina eta arina izatea”

buruarengan ez zuen konfiantzarik. Beti makulu bat behar zuen alboan. Diego sekula ez zen bakarrik ibiliko. Suertea izan zuen, bide zuzenetik eraman zuten makulu onak izan zituelako alboan: Juanmari, Antton Gorrotxategi [medikua], Xanti... Eta bere lagunak ere 'aldrebes koadrilla' izan arren, beti lagunduko zioten. Diegok karrera non, han azalduko ziren koadrillakoak. Pertsona eta kirolari bezala oso maitatua eta errespetatua izan zen.

### **Zuk, Txetxu, beti nabarmendu duzu maratoia prestatzeko moduan Diegok eta haren inguruak irekitako bidea.**

**T. U.:** Diego hasi aurretik astean 200 kilometroko entrenamendu saiorik inork ez zuen egiten. Hori ez zen inoren buruan sartzen. Diegoren ohiko entrenamenduak 240 kilometrokoak ziren. Aste batean 265 kilometro egitera ere ailegatu zen. Berak ez zuen besteek adinako kalitatea eta motorra; baina sufrizten txapeldun olinpikoa zen. Berean maisua zen. Atletak guztiek harekin ikasi egiten zuten. Berak erakutsi die bidea beste guztiei. Espainiako maratoi modernoaren aita bera izan da.

### **Gurasoak Extremadurakoak izanik, kalean ikasi zuen euskaraz. Euskara ere hala-koxea zuen, ezta?**

**J. O.:** Euskara hark sentitzen zuen bezala guztiok sentituko bagenu, beste Euskal Herri bat edukiko genuke.

**T. U.:** Azkoitiko baserri batean jaio zen, baina aita eta ama extre-



Txetxu Urbietta eta Juanmari Olaizola, proiektuaren sustatzaileetako bi.

madurarrak, etxean giro erdalduna zuten. Koadrilla baserritarra zuen, abertzalea. Euskaldun sentitzen zen, baina berak uste zuen denek etorkin bezala ikusten zutela. Horrekin barruko borroka zuen. Bazekien belarri motxa zela. Bere dialektu propioa zuen.

**J. O.:** Lagunarteko euskararen eta etxeko erderaren arteko nahasketak bat zuen. Behin kontsultara haserre etorri zen, indioek bezala hitz egiten zuela esan ziotela eta!

**T. U.:** Bertsozalea zen, Andoni Egaña idoloa zuen. Diegok zioen txapeldun olinpikoa izatea baino askoz nahiago zuela Euskal Herriko bertso txapeldun izatea.

**J. M. O.:** Gainera, bertsoan egitea gustatzen zitzaion. Añotan bazkaldu genuen batean argi antzean zegoen Diego. Lazkano bertsolariak esan zion behar-kokan haien etxean egingo genuela mokadutxo bat. Lazkanoren etxe atarira iritsi, Azpeitiko herriari begira jarri eta "orain Azpeitiri bertsoa botako nik" esan eta hasi zuen bertsoa. Noiz bukatu ez zekiela, Lazkanok atzetik esan zion: "No! Ez huen bertso ederra baino intentsioa behintzat bazian!".

### **Makina bat sekretu partekatuko zenuten elkarrekin...**

**T. U.:** Ez zekien sekretuak gordetzen. Diegoren konfiantzazko pertsona bazinen, segituan kontatuko zizun. Juanmarik guztiak dakizki; Diegoren anaia zaharra zen.

**J. O.:** Diegok nirekin ez zuen sekreturik. Bere kezka guztiak kontatzen zizkidan. Madrilgo kazetari bat berari buruzko liburu idazten ari zela hil zen Diego. Kazetariari esana zion berari buruzko zoezer jakin nahi bazuen niri kaso egiteko. Liburuan kazetariak dio nik nekizkiela gauza asko Diegoren amak berak ere ez zekizkienak. Amak hala esaten dit bisitan joaten naizenean: "tu cuantas cosas sabrias de mi hijo que yo no lo se".

**T. U.:** Anekdotak ere asko! Sevillara maratoira joan ginen batean, keniar bat gurekin ibili zen. Korrika oso ondo egiten zuen, baina mendi puntatik etorria, ardi galdu samarra zen. Maratoiko egunean lo hartu zuen, eta korrika eta presaka gosaldutxo gabe ekin zion lasterketari. Zorabiatu eta erretiratu egin behar izan zuen. Gerora jakin genuen Diegok Sevillara eraman zuen material guztia berari eman ziola, isil-isilik. Hain hauskorra ikusi zuen, nonbait. Zeukan guztia ematen zuen Diegok. Eskuzabala zen.

### **2001eko martxoaren 31. Egun hura eta Diego hil zela jakin zenuteneko unea nola gogoratzen duzue?**

**T. U.:** Karrera bezpera zen eta goizean Aradi dendara joan eta bainujantzia eta toalla erosi nituen. Diegoren azken salmenta izan zen. Kopak Izarra hotelera eramaten lagundu nion. Izarra hotelen geundela Alejandro Gomez [Diego hil zenean elkarrekin zeuden] eta Adidaseko buru Pegarnau azaldu ziren. Alejan-drok zirkuitua pixka bat bere egiteko korrika egin nahi zuela-eta laguntzeko esan zion Diegori. Hala, haiek korrika egitera eta ni etxera joan nintzen. Bazkaldu eta beti bezala lagunekin kafea hartzeko Artzubira ailegatu nintzenean, lagun batek esan zidan Diego 'patatekoak emanda' anbulatorioan zegoela. Anbulatoriora bidan Xebastian Lizasorekin egin nuen topo. "Hil dek", esan zidan.

**J. O.:** Bartzelonara joana nintzen, ikastaro batera. Bezperan, ostira-lean, hitz egin nuen Diegorekin azkeneko, telefonoz. Bartzelonatik bueltan, Tolosara iristean etxera deitu nuen, baina ez zidaten hartu telefonorik. Azpeitira iristean emaztea balkoian zegoen; aurpegira begiratu eta antze-man nion zerbait pasatu zela. Etxean sartu eta esertzeko esan zidan. "Diego", esan zidan. "Diego zer? Akzidentea?". "Ez, bihotzekoak emanda hil egin da".

**T. U.:** Hurrengo egunean zen karrera eta subrealista izan zen. Denak negarrez, karrera antolatutxo behar, arratsaldean hiletan...

### **Haren omenezko irudiaren ondotik pasatzean zer sentitzen duzue?**

**J. O.:** Niri beti gustatzen zait bere beso argal haietan edo izterretan igurtzitxo bat ematea. "Beno, hire lana badakik zer den orain, guri esku bat botatzea", esaten diot.

**T. U.:** Juanmarik igurtzia ematen dion bezala nik bizkarrean golpea eman, *kabrito* esan eta aurrera egiten dut. Keinuak-eta hain igo-lak ditu... Lan hura perfektua da.★

“Bazter guztietan Laguna besterik ez zuen utzi diegok”

“Espainiako maratoi modernoaren aita bera izan da”



# Wkabi

informatika

2014

*Urte berri on!*

# Ikatza

**A**upa Olentzero,

Aurtengoan ere ikatz karrokada irabazi du hainbat agintari politikok: Rajoy, Saez de Santamaria, Soria, Montoro, Fernandez Diaz, Wert... eta etxean ere... baina ez naiz luzatuko, nire usteak azaltzeko baino.

Boterera iritsi denetik, PPK bere buruari alfonbra gorria bota diola dirudi, edo behintzat zilegitasuna sentitzen du inoizko legegintzaldi atzerakoiena inongo lotsa eta beldurrik gabe garatzeko, amaraun sendoa josiz. Lau urtetan martxan izango duten makinaria birrintzaileak ekarriko dizkigun ondorioak zerrendatzen hastea baino, errazagoa izango da datozen agintaldietan boterea hartzen duen alderdi edo dena delakoak, atzerapen horiek guztiak berreraikitzeke izango dituen trabak, salbaezinak ez, baina iraultzeko oso zailak izango direla ondorioztatzea.

Ez dut esango inbidia ematen didatenik, baina ezin da zalantzan jarri eskuin kontserbadoreak duen militantzia, balore sinesmena eta baliabideen kontrola. Esan eta egiten dituzten gauzak, defendatzen dituztenak, argudio eta logika aldetik barregarriak iruditzen zaizkigu askotan, lotsagarriak eta batez ere, iraingarriak. Itxuraz inongo koherentziarik ez duten lan erreformak, hezkuntza erreformak eta abar luze batek, ordea, helburu argi bat dute: klase bereizketan sakontzea, botere zentruak herritarrengandik urruntzeko. Horrek sozial, kultural zein pertsonen duintasun mailan izan ditzakeen ondorio "kolateralak" zein diren inporta gabe, alegia, guri nola eragiten digun axola gabe.

Ikatza merezi dute, eta sua. Arautegi bitartez mugatzen dituzte gure eskubideak, eta gure aukeraketak. Baina askoz ere ilunago eta zikinagoak diren planteamenduak dira, ez da gure duintasunaren lapurreta soil. Herriarrok elkarren arteko harremanak izateko moduari eragiten dio zuzenean. Askatasuna gure nortasuna era betean garatzeko aukerak izatearekin lotzen badugu, araudi muga-



|||||||hodei mendinueta|||

|||Olentzero, prestatu ikatza ugari, bizitza bizirauteko lehia bezala saltzen dutenentzat

tzaile hauen bitartez lortzen den efektua, frustrazioa da. Herritar soilak ez dezala ikusi etorkizunik, bereziki beldurtia izan dadila, eta bere parekoekin ordain ditzala bere ezintasunak. Dinamika honen baitan azaltzen joan daitezken zenbait arazoren aurrean alerta egoeran jartzea ezinbestekoa da; arrazakeria, sexismoa, eta orokorrean, jarrera zapaltzaileak. Kolektiboa banakakoak babesteko elkarketa da, eta berau osatzen duten norbanakoek, bizirauteko euren baloreak konpartitzen ez dituztenak baztertzera jo dezakete egoera zailenetan, boterea eta estatusa mantzentzeko erreakzio bezala.

Foucaultek zion boterea ez dela gune sozial jakin batean biltzen, elkarrekintza sozial orotan banatzen dela indar eta intentsitate ezberdinez. Eta azken batean, benetan gure biziraupena eta garapena bermatu behar duten egiturek, instituzioek boterea banketxe eta multinazionaleri saltzen, herritar soilon artean, gure eguneroko eremueta eta egoeretan geratzen den botere hondar hori eskuratzeke borroka eta lehiak handitzea, ondorio logikoa da. Aurrera egitea besterik ez dago, zeuk erabaki nola, zenbat eta gorago, hobe, saldu zure burua. Hori da PPK arautzen duena.

Horregatik, Olentzero, prestatu ikatza, ugari. Elkarren arteko maitasun eta babesaren ezkutuak hautsi nahi dizkiguten diruzale profesional horientzat, bakoitzak bizimodua ahal den modura eta ez pertsona duen modura antolatzen behartzen gaituztenentzat. Bizitza bizirauteko lehia bezala saltzen dutenentzat.\*






ONDO PASATU SANSEBASTIANAK

2014



## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA. Babestu ezazu euskara!**

Dirua aurrezteko, eskaintza bereziak aprobetxatzen ditugu. Euskara babesteko, berriz, garrantzitsua da erabiltzea, hitz eginez nahiz idatziz. **Uztarrria**

**BEHERA. Euskararen kontrako alarma ere konektatuta.**

Denda honetako jabeak hobe luke kartela euskaraz jarriko balu. Euskararen normalizazioa lortzeko bidean a zer nolako atzerapausoa! **Uztarrria\***



Manolo Sanjuan.

## ESANA DAGO

III “Egunero joaten naiz tallerrera, han neure saltsan egoten naizelako”

III “Juan XXIII.a aita santuarentzat ama birjina bat egitea egokitu zitzaidan, eta benetan ohorea izan zen niretzat”

**MANOLO SANJUAN**  
tailagilea, Kultur Mahaiak ohorezko bazkide izendatu du

III “Oso garbi zegoen dena. Guztiok genekien zein ziren, baina zigorrik gabe geratu ziren azkenean”

**ARANTXA OÑEDERRA**  
Ramon Oñederra  
Kattu-ren arreba



## Zirikatzaile natorkizue

**N**ik ere bai, jaio berri den 2014 honetan onena opa dizut, osasuna eta kemena. Ni neu bide beretik jarraitzeko asmotan nator, zirikatzaile, inongo asmo ezkuturik gabe. Amaitu berri den urteko azken albisteetako bat, ama Gipuzkoak etxeko 89garren seme edo alaba onartu duela. Erabakiaren berri izan bezain pronto, etengabe bueltaka baina lan emankorrik gabe dabilen burura, honako burutazioa. Eta Urrestilla zer? Herria da ala ez?

Duela ez urte asko, kamiseta eta guzti, lelo horrek indar handia zuen gure lurretan. Aspaldian, ordea, leloa dezente lelotu delakoan

nago. Pako Aristiren kinta xahartu eta ordezkorik ez? Ez da posible, ezin liteke. Oraingotan, Azpeitiko inperioak asmatu duelakoan nago. Nola? Kolonoak 'siberguentzako' zubiruntz bidali, bertakoekin ezkontarazi, odola nahastu eta... kitto, arazoa konponduta. Nire lagun Ana Mariaren baja ere erabakiorra izango zen (bere semearen oilaskoa honezkero majo hazi da). Herri ala auzo, Urrestilla beti izango da gure Monaco txikia. Herri izendatzen dutenean, muga izango den Atxuiya, paradisu fiskal (alkate jauna, apunta).

Eta Ibaiederren behera, gatozen Landetaren aipamena egitera. Amets Arzallus kuttu-

nak txapela nagusia jantzi berri duen honetan, Landetako bertso unibertsitatearen krisia inoiz baino mingarriagoa egiten da. Izan ginena eta garena, a zer aldea, a zer diferentzia. Akerrekin bat egin eta hau hobetu beharra dago. Bordatxo berrian jarri beharko lege zaharreko bertso eskola modernoa. Xebastianek dotore asko irabazi eta soinean izan zuenak herrian ordezkoa izatea bezain ederra litzateke Joxe Lizaso, Agirre, Lazkano eta tankerako herritarren teoria eta ironia izatea. Haiek bai zirikatzaileak eta ez letra jostun kaxkar hau. Urte Berri on. Denoi, zuri ere bai.✳



txetxu urbieta

IKUSTEKOA!



### ▲ PARRANDATIK ERRETIRATU EZIN.

Santotomasetako juerga majo luzatu zitzaion argazkiko mutilari. Etxera ailegatu artean loari eutsi ezin eta Laboral Kutxaren bulegoan hartu zuen aterpea. Kutxazaina ohetzat hartuta, *mesanotxean* ez zitzaion falta katxia. Eta horrela topatu zuten abenduaren 23ko goizean bulegora iritsi ziren aurreneko erabiltzaileek. ✳ **Uztarria** ✳

## ABENDUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



alex silva



### Etorkizunerako gidari berriak

**ZUZENDARITZA ALDAKETA.** Gustura aritu naiz azken urte hauetan Kultur Mahaiko zuzendaritzan. Helburu handiak genituen eta, asko gauzatzea lortu ditugu. Beste batzuk, berriz, saiatu gara. Orain, ibilaldi berria hasi behar du mahaiaik erronka handiei aurre egiteko, horretarako, aire freskoa ekarriko duten gidariak izango ditu. Esku onetan geratzen da, ez dudarik izan. Aroak hasi, hasten direlako, baina amaitu ere egin behar direlako. Animo!



### Hormak koloreztatu

**MARITXU ETXEZABAL.** Harritu egiten naiz Sanagustinera gerturatzen naizen gehienetan. Zelako argazki eta koadroak egoten diren. Miresgarria da herritar askok isil-isilik egiten dituzten arte obrak. Pixkanaka ari dira horiei garrantzia ematen eta azalarazten. Azkenekoan Etxezabalen koadro koloretsuek deitu zuten nire arreta. Garai ilunetan hormak koloreztatu behar ditugu.



### Familiari elkartasuna

**ONARTU EZ.** Gogorra da gure kaleetan horrelakoak gertatzea. Berdintasunean eta askatasunez bizi garela diote, baina gero horrelakoak gertatzen dira. Nola azaldu? Abenduko argazki, gertakari ilunena da; ezin ditugu horrelakoak onartu. Leiho txiki honetatik, familiari elkartasuna.



### Harrobi ederra

**TURISMOA.** Oraindik ez diogu behar besteko probetua ateratzen gure inguruak eskaintzen digun altxorrari. Badirudi, pixkanaka, gurea saltzen ari garela eta gero eta arrakasta gehiago duela, baina badugu zer egin, zer probatu, zer landu... Turismoari etekina atera behar diogu, eskaintza osatuago bat behar dugu. Ezin dugu hogeita bi mila bisitariekin konformatu.\*

## INKESTA

zer eskatzen diozu urte berriari?

 Ainitze Agirrezabala

UNAI ALBERDI

13 urte



“Eskolan ez ditut emaitza txarrak ateratzen, baina urte berrian notak hobetzen saiatuko naiz. Batez ere, gaztelania ikasgaiari, pixka bat hakamotz ibiltzen bainaiz erderarekin. Gainontzean, 2014a aurrekoa adinakoa bada, ni konforme!”

EDURNE BASTIDA

11 urte



“Urte berrian gurasoekin, familian, Londresera bidaia bat egitea nahiko nuke. Hango eraikinak ikusi, erosketa batzuk egin, ingelesa praktikatu pixka bat...”

ANTONIO SANZ

42 urte



“Lana eskatzen diot 2014. urteari. Zorionez, neu ondo nago lanari dagokionean, baina familian, lagunartean eta inguruan badut jendea langabezia. Haietzako albisterik onena litzateke”.

AINHOA ALBERDI

41 urte



“Osasuna eta lana, ordena horretan, eskatzen dizkiot urte berriari. Bestalde, aspaldian ez dut ezer egin eta 2014an kirola egiten hasteko asmoa dut”.\*

## Errealitatearen itxura(keria)



amaia agirretxe

Zuetako askok bezala, Durangon erositako, argazkiekin osatutako edo bankuak oparitutako betiko egutegian borobildu dut nik ere urtarilaren 19a.

Egun horretan desfilatzera atera ohi gara herritarrek, desfile horrek gure herriko hainbat errealitate irudikatzen du, baita beste hainbat ezkutatu ere. Danborradaren bilakaera herriarenarekin alderatuz, lortutakoren eta lortzeko dugunaren argazkia ikus genezake.

Hasiera bateko irudiei erreparatuz, talde gehienek elkarte gastronomikoak ordezkaten zituztela ikus genezake, gehienetan danborjoleak gizonak zirela eta emakumeei banderadun eta kantinera postuak zegozkiela.

Urteekin, handituz joan da taldeen ordezkartza, elkarte gastronomikoez gain hainbat eragile kultural eta sozialek beren taldeak atera dituzte. Borroka luzearen ostean, talde denetan gizon-emakume danborjoleak aurki ditzakegu. Kantinera eta banderadunen figurak mantendu egin dira.

Desfileak gero eta kolore gehiagotako herritarrek ordezkaten ditu, baina ezin esan herriko kolore eta errealitate denak islatzen dituenik. Etorkinak, emakume jubilatua, irizpide ezberdinak medio tokirik edo dirurik ez duten norbanako zein kolektiboak, eta zergatik ez, danborradarekin ezer jakin nahi ez dutenak.

Herri desfilean nor ordezkaten dugunaz gain, nola ordezkaten dugun ere adierazgarria da eta hemen ez da halako aurrerapenik eman. EITBrentzat irudi ona eman nahiak herritik eta herritarrontzat egiten diren festetatik gutxi baitu.

Irudiak itsututa gauzkan garai honetan itxurakeria gehiegi darabilkigulakoan nago. Bada ilarak zuzen mantentzea eta jantziak ondo plantxatuta ematea baino balio garrantzitsuagorik. Pentsatu al dugu, adibidez, kantinera guztiak zergatik diren emakumeak? Zer eta nola ordezkaten duten, alegia, zer irudi ematen duten?\*

galdetzen hasita, aurtengo urtean Langabezia-tasak herrian zer-nolako joera izango du?  Uztarria

## Mandela: profeta, gobernari



joxe arregi

Joan den abenduaren 10ean, giza eskubideen nazioarteko eguna, ehun Estatu-buru bildu ziren Johannesburgoko futbol-zelaian, Nelson Mandela hil berria omentzera. Han ziren, dotore eta serio, munduko kriminalik handienetako batzuk.

Zer egiten zuten han, XX. mendeko profeta, justiziaren militante, utopiaren lekuko handienetakoaren aurrean? Mandela omentzera joan zirenek zergatik ez diote berari jarraitzen, eta jarraitzeko asmorik ez badute, zertara joan ziren?

“Gauza bat da, ordea, profeta iraultzailea izatea, beste bat gobernatzea –diote askok–. Posiblearen artea da politika, ez utopien aldarria”. Bego. Mandelak berak ere, 1994an Hegoafrikako presidente hautatu zutenean, ahal zuena egin zuen, ez amesten zuena. Zuri gutxi batzuen menpean zapaldurik zeuden beltzei berdintasuna eta duintasuna itzuli nahi izan zizkien, baita lortu ere... paperetan. Baina Hegoafrikako beltzak zurien morroi dira oraindik ere

oro har. Dirua zuria da, eta miseria, beltza.

Gobernatzen duenak ahal duena egiten du. Baina beste galdera bat dago oraindik egiteko: zergatik ez zuen Mandelak gehiago egin ahal izan? Ez, noski, utopiari uko egin ziolako, ezta “gauzak halaxe direlako” ere. Zergatik orduan? Abenduaren 10ean bera omentzera bildu ziren gobernariaren arteko ahaltsuenei galdetu beharko genieke. Finantzen, merkatuaren, boterearen diktadura “errealitate” bihurtzen dute, eta gero esaten: “Errealitatea da”, “Dagoena dago”. Zergatik dago dagoena?

Mandela profetak zegoena irauli nahi izan zuen. Mandela gobernariak ez zuen lortu, baina Mandela profetaren ametsa Mandela gobernariaren errealismoan urteak ez da zilegi. “Utopia” ezinezkoa omen delako “dagoena” kanonizatzea ez da zilegi. Ezinezkoa amestu gabe, ez dugu posiblea lortuko. Eta gorrotoa eta mendekua Mandelak bezala errotik garaitu gabe ere... ez, ez dugu egiazko iraultzarik egingo.\*

TABERNATAN E LEGE BAT O  
JARRI ZEBELA SONATZEZIK BAI...



AZPEITIN E  
BAI ORDIE?

kerik

gabeko gunea

...



## Munduaren berri (II)

**E**z da, ez, modu txarra mundua ezagutzeko: etxe atarian esertzea eta mugitzen ari den munduari begiratzea.

Eta hala ere, sentitzen dut ez dela nahikoa. Etxe aurretik pasatzen direnak ere berena kontatzera baino, besterena ezagutzera datozela, edo norberarena ahaztera, mundu berria bilatzera. Etxe aurretik pasatzen denak askotan ez du atzean utzi duena buruan, aurretik izango duena baizik, eta ez du baloratzen berea, ez du aintzakotzat hartzen, beste zerbaiten bila ari delako, txarra dela-edo irizten diolako. Edo besterik gabe, mun-

dua ezagutzen ari direlako, ez mundua erakusten.

Horregatik, bidaia prestatzen ari naiz. Nik ere, mundua ezagutu nahi dut. Leku berriak, bazter zaharrak, paraje galduak, telebistaz mila aldiz ezagutu ditugunak, ezagutu nahi ditut, telebistaz ikusitakoa edo jendeak esandakoa neure begiz ikusi, neure bihotzez sentitu. Deskubritu nahi dut hain eder ikusten diren paraje horien edertasuna hainbestekoa ote den, edo jendeak, komunikabideek puztu ote duten. Postal bat ikusita sentitzen ez dena sentitu nahi dut.



### ■■■■■■■■■■ eñaut frantzesena ■■■■■■■■■■

Jendea ezagutu nahi dut, ezberdin bizi direnak, ezberdin pentsatzen dutenak. Hain ezberdinak ote garen deskubritu, neuk galdetu zerk kentzen dien loa, munduaren bazter hartan egiten dituzten ametsak hemengo ametsen tankerakoak diren jakin. Azken batean, mundua ikusi nahi dut, gero, itzuli, eta ikusitakoarekin, sentitutakoarekin, mundu berri bat eraikitzeko.

Bai, ezagutu daiteke mundua beste modu batean ere: mundua geldirik utzi, norbera mugitu, eta bihotz-begietatik sentituta. Banoa.\*

## Justizia norbere eskutik hartzea

**K**eller Dover (Hugh Jackman) bere biziko amets gaiztoan murgiltzen da bere alaba Anna eta haren laguna Joy desagertzean. Denbora aurrera dihoala, ezin egonak, beldurrak... menderatu egiten du. Polizia hainbat pisten atzetik dabil ikerketetan baina presioa areagotzen doa neskati- len bizia jokoan baitago. Dover, bere etsitasunean, bere kabuz hasten da ikerketa burutu nahian baina zer egiteko prest egongo da bere alaba berreskuratzeke?

2013ko film onenatariko bat da. Izugarriko thrillerra da, eserlekura itsatsita eta liluraturik uzten zaituen horietakoa. Tentsioa eta jakinmina ez dira desagertzen pelikula osoan. Sariak lortuko dituen lana da (merezi duena behintzat, bai), benetan ikusteko modukoa.

Jackmanen papera ikaragarria da, aita honen desesperazioa barruraino heltzen zaizu eta Jake Gyllenhaal inspektore lanetan ere oso ondo aritzen da.

Ez naiz oso thriller zalea, baina inpresionatu egin nau. Eszenatokia, musika, etengabeko misterioa... filmaren barruan sentitzen zara.

Bahitzailearen identitateak ere sorpresan hartu ninduen, ez baita

### ■■■■■■■■■■ haizea etxeberria ■■■■■■■■■■

amaiera garbi ikusten den filma.

Justizia geure eskutik hartzeaz zer pentsatua ematen du. Zer egingo genuke egoera horretan? Norberak egin dezala bere hausnarketa.\*



### ■■■■■■■■■■ KRITIKA ■■■■■■■■■■

'Prisoners' pelikula



**Zuzendaria.** Denis Villeneuve.

**Aktore printzipalak.** Hugh Jackman, Jake Gyllenhaal, Viola Davis, Maria Bello, Terrence Howard, Melisa Leo.

**Urtea.** 2013.



## AIZPURU AUTOAK

Landeta auzoa - Telf. 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia

[aizpuru@aizpuru.net](mailto:aizpuru@aizpuru.net)







2:10 aldean, iritsi zen Azpeitira 18. In euskararen alde egiten denak Andoainen, Martin Ugalde kultur hartxoaren 14an, eta Baionan bukatu an.

### ▼APIRILA.

Iraurgi SBren harrobiko harribitxietako batek, Aitor Zubizarretak, Estatu Batuetako NCAA-1 ligan jokatuko du aurten. Portlandeko Unibertsitateak beka bat eskaini dio eta bertako Portland Pilots taldean jokatuko du hurrengo lau urtetan.



# 2013a argazkitan

Uztarriak 'urtekaria' osatu du joan den urtean herrian hilabetez hilabete jazotako gertakaririk aipagarrienetakoeekin. 📌 Ainitze Agirrezabala



### ▲ MAIATZA.

Benantxio Irureta (Aizarna, 1953) mendizalea maiatzaren 11n hil zen, Aneton istripua izanda.



### ▲ UZTAILA.

Azpeitian 30 urtez haurrei eta gazteei pilotan irakasten jardun eta gero, Santio egunez utzi zuen jarduna Jesus R. de Argandoña Keuttin-ek.



### ▲ ABUZTUA.

Alfonso Gallardo Taldeak Corrugados Azpeitiako langile guztiak kaleratu eta enpresa itxi zuen, abuztuaren 7an.

### ▲ EKAINA.

Hogei urtetik gora futbolari eman ostean, uztea erabaki zuen Mikel Labakak. Hamabi urterekin hasi zen Labaka futbolean, Lagun Onak-en. Azaroaren 15ean Garmendipen omendu zuten.

### ▶ TRAILA.

'Azoka Herritik' ekimena antolatu zuten hilaren 20, 21 eta 22an. Ekimenaren helburuetako bat "Azpeitiko ekonomia sustatzea" zen. Gabonetarako ere antolatu zuten.





### ▲ URRIA.

Segiko kide izatea egotzita, urriaren 14tik aurrera hasi ziren epaitzen Olatz Izagirre Azpeitiko bizilaguna, beste 39 gazterekin batera. Hilaren 17an, berriz, *herriko tabernen auzia* hasi zen eta tartean da Orkatz Kultur Elkarte. Irailaren 30ean, oster, Herriraren kontrako operazioa eman zen eta Guardia Zibilek Eneko Iburguren *Kurku* atxilotu zuten, "Gipuzkoako Herriraren zuzendaritzako kide izatea" leporatuta.



### ▲ AZAROA.

24 urte preso igaro ostean, azaroaren 19an atera zen Juan Carlos Arruti *Paterra*, Kordobako Alcolea espetxetik. Paterrak 2009ko irailaren 10ean bete zuten ezarritako zigorra, baina 2010eko otsailean 1997/2006 doktrina (Parot delakoa) ezarri zioten.



### ▲ ABENDUA.

Grumal likidatu, eta 148 langile kalean geratu dira, hil honetan. Hala jakinarazi zioten langile batzordeari enpresaren konkurtsoaren administratzaileek, abenduaren 20an. Grumaleko langileak manifestazioa egin zuten Arrasaten.

# Azken trena

Herriak nor izan nahi duen galdetzea eskatu du Gure esku dago taldeak. Etorkizuna erabakitzeke aukera errespetatzea nahi dute. 📌📍 Eneritz Albizu Lizaso

**H**erriari zer nahi duen galdetzea, hori da nahi dugun gauza bakarra. Beldurrik gabe, erreparorik gabe; ez dugu besteen menpe bizi nahi". Tinko azaldu dute Gure esku dago taldeko kideek proiektuaren mamia. Sustraiak Goierriin dituen mugimendu bati jarraiki, duela sei hilabete inguru sortu zen Gure esku dago, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen duen proiektua. Zazpi herrialdeetan, 100 talde inguru daude; eta Gipuzkoan, 25 bat. Azpeitian, hain zuzen, hogeitaz biltzen dira, bi astean behin. Proiektu berria dute eskuartean, freskoa, eta lanerako grina usain daiteke haien artean.

Herriarrak mobilizatzeko eta kontzientziatzeko helburuarekin ekitaldiak prestatzen dihardu taldeak. Horretarako, hiru lan-talde zehatz dituzte, ongi antolatuak: harremanen sareaz arduratzen den taldea, komunikazioaren eraginkortasuna bideratzen duena eta ekitaldiak antolatzen dituena. Taldeko ordezkari bat, hilerio, Gipuzkoako gainontzeko taldeekin biltzen da, ideiak partekatzeko eta esperientziak trukatzeko. Gure esku dago proiektua 100 taldetan banatutako sare handi bat da; herri bakoitzeko taldeak libre dira auzia euren gisara lantzeko. "Ez dago zentralik, gu gara proiektuaren erdian gaude. Zenbait pertsona daude guztion jarduna koordinatzeko, baina inork ez ditu herrietako ideiak eta ekintzak mugatzen", azaldu du



Goian, Ekaitz Martinez, Eneritz Mancisidor eta behean, Olatz Gorrotxategi eta Josu Albero.

Ekaitz Martinezek, proiektuarekin bat egiten duen herritarrak.

## Herritik herrira

Josu Albero Azpeitiko Gure esku dago taldearen koordinatzailearen hitzetan, hiru oinarri ditu herri ekimenak: Euskal Herriaren nazio izaera, herriaren etorkizun politikoa erabakitzeko xedea eta mobilizazioa, herriaren erantzuna. Azken ardatz hori nabarmendu nahi du Gure esku dago-k: "Behetik gorako ekimena da, ez goitik beherakoa, orain arte egin den bezala". Eneritz Mancisidorrek, ekitaldiak antolatzen lan-taldeko kideak, uste du "herritarrek mugitzea" dela nahi dutena lortzeko "bide bakarra". "Motorra herria da. Gu gara sistema honetako funtsa, ez buruzagiak; guk bideratu behar ditugu haiek. Horretarako, herritarrok dagokiguna eskatu behar dugu, guztiok bat eginda. Eztabaida ireki behar da hemen", nabarmendu du Mancisidorrek. Harekin bat dator Albero ere: "Guk mugitu behar ditugu politikariak, eta ez haiek gu. Agenda politikoan sartu behar dugu gaia, he-

rritik buruzagitzara. Politika ez da lau urtean behin boza ematea. Gure esku dago-k zinez sinesten du horretan, eta horregatik egiten dugu lana".

Erabakitze eskubidea, zuzenean, independentziarekin lotzen duten guzti horientzat azalpenak eman dituzte proiektuarekin bat egiten duten herritarrek. Erabakitze eskubidea "gure herriarentzat zer nahi dugun" adierazteko aukera da. Desira horien barruan, jakina, independentzia dago. Bestalde, herritarrek autonomia gehiago eskatu dezakete edo gaur bezala bizitzen jarraitzea: guztia zilegi da. "Herriari hitza aitortzea da gakoa, gero, hark esango du zer nahi duen", zehaztu du Mancisidorrek.

Horrek berekin dakar taldearen aniztasuna. Esan gabe doa, ez da inongo nortasun agiri politikorik behar taldean sartzeko. Gure esku dago-k argi ditu ideiak, hala diote taldekideek: "Hau ariketa demokratikoa da, politikoa baino gehiago. Proiektuak ez du inongo ikur politikorekin loturarik, orri zuri bat da". Eta horrela da, kontsulta bat egitea da taldearen nahia; herritarren iritzia kontuan hartzea ez da alderdi jakin batzuek egin behar luketen jarduna.

## Marko politikoa, traba

Espainiako estatuko konstituzioak, ordea, kontuak ilun jartzen dizkio ariketa demokratiko horri. Nazioartean onartutako afera da autodeterminazio eskubidearena; esan dezakegu, estatu honetatik kanpo, politikoki zuzena dela herritarrei zer eta nor izan nahi duten galdetzea. Horren erakusle dira azken 25 urteetan European sorturiko estatu berriak. Horren adibide da Eskozian datorren urtean egingo den galdeketa. Beraz, nazioartean, bai; Espainian, ez. Hori da marko politikoa, gaur egun. Alberok ez du amore eman nahi, badaki legeak ez direla betierekoak, erreali-

tatera egokitu behar direla. "Ez dago legerik, ez Espainiako estatuan, ez beste inon, herri baten nahia ukatuko duenik", horrela dio koordinatzaileak.

Euskal Herriarentzat eredu dira Katalunia eta Eskozia. "Gu bezalako nazioak dira", arrazoitu du Olatz Gorrotxategi taldeko kideak. Jakina da desberdintasun asko dituztela hiru herriek; iragana, historia eta egungo errealitatea, besteak beste. Hala ere, guztiek bat egiten dute puntu batean: "Hiru nazioetan herria izan da protagonista, herritarrek kalera irten dira, beraiena dena eskatu dute", argitu dute taldekideek. Gorrotxategi Katalunia hartu du adibidetzat: "Artur Mas bera ere herriak bideratu du norabide horretara, behartu egin dute kontsulta ezartzera. Katalunian ikusi dugu, ilusioa kutsatu egiten da; baiko-rrak izan behar dugu".

## Azpeitiarren zeregina

Gure esku dago-k joan den udan aurkeztu zuen 2014ko ekitaldi nagusia, erabakitze eskubidearen aldeko giza katea. Ekainaren 8an, Durangotik Iruñera artean giza kate erraldoi bat egitea da asmoa, 125 kilometroko ibilbidea izango duena. 50.000 euskal herritarren beharra dago horretarako: haurrak, gazteak, helduak, adinekoak, langileak, langabetuak, jubilatutak, etorkinak... guztiek hartu behar dute parte. Urola Kostari bost kilometro dagozkio, eta Azpeitiari, bi. Beraz, herrian, 800 pertsonak hartu behar dute Zumarragara doan autobusa, udalerrir horretako zatia baita azpeitiarrei egokitu zaiena. "Gutxienez, 800 herritar biltzea lortu behar dugu.



||| "Hau ariketa demokratikoa da, politikoa baino gehiago. Proiektuak ez du inongo ikur politikorekin loturarik"

EKAITZ MARTINEZ



||| GIZA KATEA ZENBAKITAN |||

**50.000** pertsona. Giza katea, Durangotik Iruñera, osatzeko behar den jende kopurua.

**800** herritar. Azpeitiatik, gutxienez, parte hartu behar duten lagunak. Azpeitiarrek Zumarragan izango dituzte bi kilometro.

►Gure herriak ere lagundu behar du proiektuan. Herritarrek ere igo daitezela olatu handi honetara, gurekin martxan jarrai dezaten”, azaltzen du, ilusioz, Alberok, ekitaldiak antolatzen diharduen herritarrek.

### Zer egin dezakegu?

Gure esku dago-k badaki ez dela zeregin makala horrenbeste pertsona biltzea. Horregatik ari da lanean, irail hasieratik. Motorrak berotzen joateko lau hitzaldi eta mahai-inguru bat egingo dituzte urtarrila, otsaila eta martxoa bitartean. Ekitaldi horiekin islatu nahi dute erabakitze eskubideak eguneroko bizitzaren zein esparrutan izan dezakeen eragina. Alberoren hitzetan, ekitaldiak antolatzerakoan, dibertsitatea bilatu dute: “Hizlariak oso desberdinak dira elkarren artean. Ikuspuntuei eta gaietara dagokionez, aniztasuna islatu nahi izan dugu”. Horrela, kirola, kultura, eremu juridikoa eta esparru sozio-ekonomikoa landuko dira, besteak beste. Herritarrek informatzea da hitzaldien xedea: “Gure helburua jendea eroso sentitzea da, haien barrera iristea, eta pentsaraztea. Ez dugu gehiago eskatzen”, azaldu du Martinezek. Hitzaldiez gain, bideo klip bat prestatzen ari da taldea, herritarren atxikimendua erakusteko eta proiektua ezagutzera emateko.

Soreasun izango da Azeptitiko taldearen ekitaldi nagusia, martxoan. Kideen hitzetan, “herritarrek herritarrentzat eginiko ekimena” izango da Soreasukoa. Herriko dantzariak, kirolariak, musikariak eta hainbat eragilek parte hartuko dute festan.



|||“Motorra herria da. Gu gara sistema honetako funtsa, ez buruzagiak; guk bideratu behar ditugu haiek”

ENERITZ MANCISIDOR

## ||| EGITARAUA |||||

### URTARRILA

**Mahai-ingurua.** Euskal selekzioei buruzkoa, Arritxu Iribar kazetariak moderatuta. Hilaren 30ean, 19:00etan, Sanagustinen.

### OTSAILA

**Hitzaldia.** ‘Herria, Nazioa eta Estatu’, Jokin Apalategi soziologoarekin. Hilaren 12an, 19:00etan, Sanagustinen.

**Hitzaldia.** ‘Euskal Herriaren bideragarritasun ekonomikoa, estatu izan ala ez’, Joseba Tobar ekonomialariarekin. Hilaren 26an, 19:00etan, Sanagustinen.

### MARTXOA

**Hitzaldia.** ‘Ipar Euskal Herria: gaurko egoera eta erronkak’, Eneko Bidegain

Giza katean parte hartzeko gogoia duten herritarrei dei egin die Gure esku dago-k. Fitxa batzuk egin dituzte herriaren konpromisoa eskatzeko. Horietan izen-abizenak eta helbide bat idatzi behar ditu parte hartzeko gogoia duenak, eta dagokion kilometroa emango zaio. Azeptitiko taldea postuak jartzten ari da festaz festa, herriko enparantza nagusian; Internet bidez ere aurki daitezke. Bestela, oso erraza da: taldeko kideren batekin harremanetan jarri, eta fitxa eskatu. “Gu herritarren zain gaude, taldea irekia da. Edonork edozertan lagundu nahi badu, edo besterik gabe, informazioa lortu nahi badu, ger-



|||“Artur Mas ere behartu egin dute kontsulta egitera, ilusioa kutsatu egiten da; baikorrak izan behar dugu”

OLATZ GORROTXATEGI

kazetariarekin. Hilaren 12an, 19:00etan, Sanagustinen.

**Ekitaldi nagusia.** Herritarrek herritarrentzat sortutako ikuskizuna. Hilaren 15ean, 18:30ean, Soreasun.

**Ekitaldi nagusia.** ‘Erabakitze eskubidea Europan: alderdi juridikoak’, Zelai Nikolas abokatuarekin. Hilaren 28ean, 18:30ean, Sanagustinen.✳



Fitxak banatzeko postua, santotomasetan.

turatu beldurrik gabe”, adierazi dute, aho batez.

Etorkizuna aukeratzat ikusten du Gure esku dago-k. Burua jaitsi, eta goikoen esanei kasu egiten jarraituz gero urteak haien mendean luze eta makal pasatuko dira. Euskal Herriak bere bidea jarrai dezala desio dute, ez dituzte maite agindu arrotzak. “Aukera ona dugu aurrean, autodeterminazioaren trena Europa ekialdean pasatu zen lehenbizi; orain, gugana dator. Trena pasatzen uzten duten ikusle pasiboak izan gaitezke; edo trenera igotzen diren herritar aktibo bilakatu gaitezke. Erabakia gure esku dago”.✳



|||“Ez dago legerik, ez Espainiako estatuan, ez beste inon, herri baten nahia ukatuko duenik”

JOSU ALBERO

**NAGORE ALKORTA** abokatua

## “Argi dago bidea egin behar dela, eta herritarren ahotsa da dugun tresna bakarra”

||| Nagore Alkorta abokatua (Azpeitia, 1978) gertutik jarraitu du erabakitze eskubidearen gaia, eta herrian soilik du itxaropena. Ez du ikusten gobernu zentrala “pausoak emateko asmoarekin”, eta nabarmendu du Madrilen ordezkariak izan duten alderdi abertzaleen jarrerak ere “argitasun gutxi” erakusten duela.

**Zer da, zehazki, erabakitzeko eskubidea?**

Komunitate politiko batek, modu askean, bere antolaketa eta harreman politikoaren markoa erabakitzea da erabakitzeko eskubidea. Kontzeptuak ez du izaera juridikorik, baina sostengu demokratikoa du. Autodeterminazioaz hitz egiten badugu, nazioa da subjektua, erabakiak hartzen dituena. Erabakitzeko eskubideaz hitz eginez gero, komunitate politikoak du hitza. Horregatik, gaur, erabakitzeko eskubidea aipatzen dugu Katalunian eta Euskal Herrian, nazioaz hitz egiteak arazo gehiago ekar ditzakeelako. Gainera, erabakitzeko eskubidea babesten duten pertsonak gehiago dira. Norberak boterea kudeatu ahal izatea da helburua, eta horrek errealitate desberdinetara

eraman gaitzake, ez du zertan independentzia izan.

**Estatu demokratikoen egin-beharretako bat al da eskubide hori bermatzea?**

Espainia estatu demokratiko gisa definitzen da konstituzioaren lehen artikuluan. Beraz, hemen bi kontzeptuen arteko talka dugu. Erabakitzeko eskubidea bermatzeak konstituzioari muinetako bati eraso egin diezaioke; Espainiaren batasunari, hain zuzen.

**Erabakitzeko eskubidea nazioartean onartutako eskumena da. Espainiako konstituzioak ukatu egiten du. Zer mehatxu ditu Euskal Herriak ideien mapa horretan?**

Espainiako estatuan ezarritako demokrazia zeharkakoa da, ez zuzena. Herriak ez du zuzenean erabakitzen. Hori aldatzen ez den bitartean, herriaren hitza eta legeak uztartu egin beharko dira.

**Legeak ere aldatu izan dira, garai edo gizarte eredu berriek horrela eskatu dutenean. Horretarako aukerarik egon al daiteke?**

Espainiako estatuaren kasuan, konstituzioa ikusita, aldaketarako aukera gutxi dago. Gainera, argi-

tasun gutxi dugu azken urteetan Madrilen ordezkariak politikoa izan duten alderdi abertzaleen jarrera ikusita. Halere, badago artikulua nolabaiteko zirrikitua uzten duena, 150.2a. Hark estatuari aukera ematen dio elkarte autonomoei bere gaiak kudeatzen uzteko. Ez dut ikusten, ordea, gobernu zentrala horretarako pausoak emateko asmoarekin.

**Eskozia eta Katalunia erdutzat ditugu. Hiru nazioek, ordea, egoera desberdinak dituzte. Zerk batzen eta bereizten ditu?**

Batzen dituen argi dago: hiru nazioek historia eta identitate propioa dituzte. Bereizten dituen gai nagusia estatuen jarrera da: noren esku dago erabakitzeko eskubidea? Erresuma Batuak erreferenduma egiten utzi dio Eskoziari. Menpeko herrialdearen eta estatuaren artean adostasuna egon da. Kataluniaren kasuan, alderdi batzuen akordioak sortu du ekimena, baina estatuaren adostasunik gabe. Erreferenduma baimentzea Espainiako estatuari dagokio. Euskal Herria ere berdin dago, aitopenik gabe. Gure herriak, gainera, funtsezko



Nagore Alkorta.

beste arazo bat du, subjektuarena: nor da komunitate politikoa? Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa ditugu Hegoaldean, eta Iparraldean ere hor dago. Nola bideratu daiteke galdera? Zer harreman mantenduko dugu batasuna oinarrian duten bi estatuekin?

**Herritarren parte-hartzea eskatzen du Gure esku dago taldeak. Herritarren iritzia tinko agertzeak eta buruzagiak presioa egiteak helburuak lortzen lagundu dezakete?**

Argi dago bidea egin behar dela, eta bai, herritarren ahotsa da dugun tresna bakarra.✘

✉ **Eneritz Albizu**

**Amenabar**  
www.amenabardecoracion.com  
amenabar@amenabardecoracion.com

Eliz-kale 32 Azpeitia  
tel.: 943150697/685110703

*“Il Partigiano” azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egingako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.*

**ETXERA ERAMANGO DIZUGU**

**Telefonoa**  
**943 08 09 13**

Ildefonso gurrutxaga, 12 behea

# Gurpila biraka

Bizikletaren erabilera sustatzeko egitasmoa abian dute Garmendia anaiek. Pedalei eraginez mugitzea erakargarri bihurtzea dute xede. 📌📍 Mailo Oiarzabal

# B

izikleta kirol tresna edo garraibide soil bat izatetik aparte, bizimodu bat bezala ulertzen dugu". Esaldi hori irakur daiteke Interneten, Facebook sare sozialeko Bizikletan Bizi orrialdean. Orrialdearen arduradunak, eta esaldiaren egileak, Joseba eta Ander Garmendia anaiek dira (Azpeitia, 1983 eta 1987, hurrenez hurren).

Bizikleta txikitatik bizi izan dute Garmendiarrek, "ia-ia jaio orduko. Gu txirindulari-tzan ibilitakoak gara, gure aita ere bai, eta gure aititte ere bai. Gure etxean txirindulari-tza nahikoa errotuta dago", dio Josebak. "Handitan ziklista izan behar dut", horixe zen gu bion ametsa", gaineratu du Anderrek. "Gero, lehiatzeari utzi arren, inoiz ez dugu galdu bizikletarekiko lilura". Eta txirindulari-tza alde batera utzita, baina bizikletan bizi dira gaur egun ere, ahal duten guztietan eta ahal duten neurrian. Orain, beraien pasioa ingurukoekin, herriko jendearekin partekatu eta hedatzeko asmoa dute martxan: Bizikletan Bizi.

Bizikletaren erabilera bultzatzea dute xede, "mugimendu bat" sortzea, bizikleta jendeak eguneroko bizimodurako erabiliko duen tresna izatea: lanerako, aisialdirako eta, zergatik ez, bidaiatzeko, beraiantzat den bezala. Hain zuzen ere, 2012ko abuztuan elkarrekin egin zuten bidaiatik bueltan hasi ziren aspalditik buruan zerabilten ideari forma ematen. Berlin-Amsterdam-Paris ibilbidea



Ezker-eskubi, Joseba eta Ander Garmendia beraien bizikletetan, bidegorrian.



bizikletaz egin zuten Garmendia anaiek orduko hartan eta, lehendik ere ezagutzen zuten arren, Europa erdialdean bizikleta erabiltzeko dagoen kultura hori etxean barreiatzen hastea gogoan zutela itzuli ziren. Horrela, orain dela urtebete pasatxo webgunea sortzeko domeinua bereganatu zuten, eta Facebooken lehen aipatutako orrialdea ireki zuten.

Bien artean ekindako bideari beste lagun batzuk ere ari zaizkio batzen –adibidez, Enok Sudepekin egin die logotipoa–. Hala ere, nahi baino mantsoago dihoakie proiektua, lanak “libre uzten dizkien orduak “askotan nahi baino gutxiago” izaten direlako. 2014. hasi berri honetarako, ordea, asmo sendoak dituzte: webgunea bukatu eta martxan jartzeari buruz, eta herrian zerbait antolatzea, bestetik. “Oraindik ez daukagu zehaztuta, baina bizikleta egun bat-edo egitea nahiko genuke. Eta, zergatik ez, hiriburuetan eta dauden antzeko masa kritiko bat sortu Azpeitian: jende multzo bat elkartu eta astero egun batean gelditu, herrian zehar ibilbide

bat osatzeko, bizikletaren erabilera aldarrikatzeko”.

2012ko bidaiaren berri emanez hainbat aurkezpen egin dituzte. Izandako harrerak euren asmoa indarberritzen lagundu die. “Azpeitian bidaia aurkeztu genuenean [2013ko urtarrilean] geuk espero ez genuen oihartzuna izan genuen –aitortu du Anderrek–. Orduan hasi ginen ikusten bazegoela animatzen zen jendea”. Bidaia hura ezagutzera emateak “jendearen interesa” pizteko balio izan die, baina argi uzten dute beraien helburua ez dela bederatzita egunean 1.300 kilometro egingo duen jendea soilik mobilizatzea.

### Bizikleta ‘cool’ da

Bidaiatzeko ere ona iruditzen zaie bizikleta Garmendiarrei, noski. Baina hori bizikletaren kulturaren arlo bat da, jendea erakartzeko “propaganda ona”. Gurerako buruan duten bizikletaren inguruko mugimendua “erakargarria” izatea garrantzitsua da, izan ere. Gaur egun ia erabat kirolera mugatuta badago ere, kotxearen erabilera hedatu aurretik, hainbes-

te urte atzera egin gabe, gure inguruan “garraibide normalena bizikleta” zela dakar gogora Joseba Garmendiak. Kotxeak, ordea, ‘pobretu’ egin zuen bizikleta ia denerako erabiltzeko ohitura hura. “Etereotipo horiek inhaustea” nahi dute Bizikletan Bizi-rekin: “Bizikleta eguneroko erabiltzea ez da kotxerik ez duen jendearentzako. Garraibide jasangarria dela ikusten dugunontzako ere bada, eta abantaila asko ditu. Askotan, herrian mugitzeko praktikoagoa ere bada, aisialdirako eta bidaiatzeko erakargarria dela ahaztu gabe”.

Kirol maila alde batera utzita, “eta erabilera pixkanaka goraka badator ere”, Azpeitian egunerokoan “bizikletan jende gutxi ibiltzen” dela diote Garmendia anaiek. “Oraindik kafea hartzera joateko kotxea hartzen segitzen dugu”, dio Josebak. Eta gazteen adibidea dakar Anderrek: “Kotxeko karneta atera arte asko ibiltzen dira kalean bizikletarekin, baina gero bizikleta aparkatu eta kotxearekin hasten dira”. Gazteei begira bereziki, “bizikletan kaletik ibiltzea ez dela bigarren mailako zerbait” erakutsi nahi dute Garmendiarrek, eta horretarako baliatzen dute Facebookeko orria, hainbat bideo eta albisterek hornitua. Bizikleta moda-modako kontua ere izan daitekeela erakutsi nahi dute. “Izan daiteke ‘cool’ bizikletan ibilita”, Josebak dioenez.

### Bidegorria, Europatik Azpeitira

Lanerako joan-etorriak bizikletan egiten dituzte Garmendia anaiek, “euri asko egiten ez duenean. Hori esanda, ematen du askotan ezin duzula joan, hemen euri asko egiten duelako. Baina, dirudiena baino askoz egun gehiagotan joan zaitezke”, azaldu du Josebak. Hitzak berresteko datua ere eman du: 2013an, 1.500 kilometro inguru egin ditu, bizikletan, laneko joan-etorriekin. Lasaon egiten du lan, eta Landetan Anderrek.

Pixkanaka osatuz doan herriko bidegorri sarearen ohiko erabiltzaileak dira bi anaiek. Gustura erabiltzen dituzte bidegorriak, baina Europa erdialdeko ereduari kaso gehiago egitea nahiko lukete. Garmendiarren ustez, inbertsio handirik gabe, “borondatearekin eta soluzio sinpleekin, asko egin daiteke”; horren adibide Zelai Luzen egindakoa litzateke, gehienezko abiadura 30 kilometrorara mugatzea. Sarean barreiatuta informazio eta eredu andana dagoela diote, “baina ikusten dugu hori ez dela hona iristen”. Europako bizikletazaleen mugimendu horretara leihoa zabaltzea, horra hor Bizikletan Bizi-ren beste erronka bat.★



## Sare bizia

Bizikletan Bizi pixkanaka gorpuzten doan egitasmoa da. 2014an kalera salto egiteko asmoarekin, orain arte batik bat Interneten eman ditu pausoa.

2012ko azken txanpan eskuratu zuten Garmendia anaiek webgunea sortzeko domeinua. Harrezkero tarteka egin ahal izan dute lan webaren proiektuan, baina urte honetan martxan izatea espero dute. “Hasteko adina eduki eta material badugu, behintzat”, azaldu du Anderrek. Bitartean, Facebookekin moldatzen dira. E-posta ere badute: [bizikletanbizi@gmail.com](mailto:bizikletanbizi@gmail.com).



# Sarketaz gozatzeko aukera

**A**zpeitiko udalak, osasun zerbitzuen osagarri gisa, PLAX! Sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua jarri du martxan, urte berriarekin. Bertan, hurbiltzen direnei hainbat ideia eta irtenbide proposatuko zaizkie, beraien bizitza sexuala eta erotikoa alaitu eta hobetzeko asmoz.

Sexualitate arloan eta bikote gaietan, bizitzako etapa bakoitzean topatzen ditugu zailtasunak, beti baita egoera eta garai berria. Horrelakoetan zer egin? Fisikoa izango al da? Psikikoa da? Ginekologoarengana edo urologoarengana joan beharko al dut? Psikiatrarengana edo psikologoarengana? Oro har, gorputza eta garuna biak daude inplikaturik, baina ez du esan nahi fisikoki akats bat dugunik edota burutik jota gaudenik. Ezta gutxiago ere!

Zailtasun sexualak gainditu beharreko oztopoak dira, lana bilatzea, bizilagunekin ondo konpontzea, seme-alabekin harreman ona lortzea... bezalaxe. Batzuetan zailagoa, bestetan errazagoa, desberdintasun bakarra zera da, aurrekoetan (lana bilatzea, seme-alabak hezte...) ingurukoek erabiltzen dituzten teknikak eta ideiak gure egin ditzakegula eta, hortaz, emaitza hobego edo okerragoekin aurrera goaz, galdetu dezakegu, konpartitu, barrena lasaitu, besteengandik ikasi... Baina arlo erotikoa ez dugu konfiantza nahikoa gure oztopoez hitz egiteko eta, hortaz, soluzioak ere ez ditugu eskura!

Uste baino ohikoago da 20, 30, 40, 50, 60 urterekin bagina-sarketaz gozatzeko zailtasuna izatea. Ez da arraroa 30 urtetik aurrera, bereziki bikote formala dagoenean edota gurasotasunaren ideia marmarka buruan darabilkigunean, 'baginismo' deitu zaion horri aurre egiteko zenbait saiakera egiten hastea.

Baginan behatza, tanpoia, zakila edo beste objektu edo bibragailuren bat sartzea zaila edo mingarria gertatzen denean, 'baginismo' bezala ezagutzen da. Nolabait, baginaren sarrerako muskulua bat-batean uzkur-



||||||| nerea sancho |||||

||| Gorputza eta garuna biak daude inplikaturik, baina ez du esan nahi fisikoki akatsa dugula, burutik jota gaudela

||| Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu zaharra, 2. solairua azpeitikoudala.com/sexu 688897920

tzen da eta benetan zaila gertatzen da sarketarekin plazerra sentiaraztea.

## Zailtasunari aurre egiteko pausoak

Horren aurrean, ohikoa da, sarketa ekiditea; horrek zailtasuna areagotu ohi du eta denborekin konponbidea jartzea zaildu. Hortaz, komeni da lehenbailehen aurre egitea.

Berez, soluzio erraza du, zer pauso eman baldin badakigu. Beldurra ematen duen horretara hurbiltze pauso txikiak eman behar dira. Hasteko, emakumeak ispilu batez bere bulba eta bagina sarrera ikustea. Pauso txiki baina oso esanguratsua da. Internet bidez ere, anatomiar buruzko webguneetan kuxkueatzea komeni da: [www.theclitoris.com](http://www.theclitoris.com) horretarako egokia suerta daiteke. Konfiantzako lagun batekin emandako pausoen berri hitz egiteak ere asko lagundu ohi du. Norbere bulba eta bagina sarrera marraztea, orri batean, arkatzez.

Hasi urte berriarekin zure bizitza erotikoa berria! ✨




**Liburuxka berria kalean**  
**Uztarriaren bazkideek doan jaso dute etxean**  
**Belaetxen eta Uztarriaren egoitzan salgai**  
**5 euroan**



**MARIA JESUS ARREGI** / Eneritz Albizu / uztarria

# Sahararekiko elkartasuna

Sahararekiko elkartasun astearen baitan, hilaren 13tik 18ra, hitzaldia, Kus Kus afaria, antzerkia eta janari bilketa antolatu ditu, besteak beste, Khamar Sahararen Aldeko Elkartek.  Ainitze Agirrezabala

**D**atorren hilean, 38 urte beteiko dira Mendebaldeko Sahara Errepublikar Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutela. Horren harira, aurten ere Sahararen aldeko astea antolatu du Azpeitiko Khamar Sahararen Aldeko Elkartek, urtarrilaren 13tik 19ra.

Hitzaldi batekin egingo diote saharar herriari elkartasuna adierazteko asteari, Hassana Aalia Aaiuneko giza eskubideen ekin-tzaile gaztearekin, urtarrilaren 16an, Sanagustinen (19:00). Hilaren 17an, berriz, Kus Kus afaria izango da, Sanagustinen, (21:00).

## Janari bilketa

Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetara giza-laguntza gisa bidaltzeko janari bilketa egingo da Eroski Txikian eta BM supermerkatuetan, hilaren 18an, zapatuan,

## III DATUAK III

III **Zer.** Sahararen aldeko elkartasun astea. III **Eguna.** Urtarrilak 13tik 18ra. III **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Khamar Sahararen Aldeko Elkartea.

10:00etatik 20:00etara. Era berean, herriko hiru ikastetxeetan aste osoan izango da bilketa.

Elkartasun astearekin bukatzeko, Lasarteko Kukuka antzerki eta dantza elkarteak 'Sahara isiltasunaren ahotsa' antzerkia eskainiko du, hilaren 18an, Sanagustinen (17:00). Eta, hilaren 13tik 26ra, Khamar Sahararen Aldeko Taldearen argazkiekin erakusketa izango da, Sanagustinen.\*

## III SAHARAREKIKO ELKARTASUN ASTEA III

**5** urte dira janari-bilketarekin hasi zirela: arroza, pasta, azukrea, lekaleak, konpresak eta atun eta sardin latak jasoko dituzte.

**100** kaxa bilduko dituzte, gutxi gorabehera, herriko ikastetxeetan, Eroskin eta BMn egingo dituzten janari bilketetan.\*



Kanpamentuetako neskatok janari-banketean. III Khamar Sahararen Aldeko Elkartea

## III BESTERIK III

### 1 Eskultura erakusketa

'Hobbya arte bihurtuta' izenburupean, eskultura erakusketa izango da, Angel Hurtado Murilloren eskutik.

III **Eguna.** Urtarrilak 10etik 22ra. III **Ordua.** 18:00-20:00. III **Tokia.** Betharrametako erakusketa aretoa. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala eta Angel Hurtado.

### 2 Arkada Social, kontzertua

Arkada Social Arrasateko taldeak, Mac Onak lekeitiarrak eta Azpeitiko Fridays Crewk kontzertua eskainiko dute. Sarrera, zortzi euro.

III **Eguna.** Urtarrilak 11 (zapatua). III **Ordua.** 23:00. III **Tokia eta antolatzailea.** Sanagustin kulturgunea.

### 3 'Koka-Kola eta barea' emanaldia

Ez Dok Amairuren argazki ofizialean ez dira azaltzen. Despertadoreak ez zuen jo goiz hartan. Baina Ray eta Nik showman paregabeek bere lekua merezi dute Euskal Kantagintzaren Olinpoan. Eta leku hori berreskuratzea etorri dira, euren memoriak jasotzen dituen 'Urrutiko Intxaurrak' best-sellerra besapean hartuta. Aktoreak Ramon Agirre eta Inazio Tolosa dira.

III **Eguna.** Urtarrilak 26 (igandea). III **Ordua.** 18:00. III **Tokia eta antolatzailea.** Sanagustin kulturgunea.\*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)

# @ho bizarrik gabe

2014

## Ametz Arzallus

- \* Urtarrilak 7, asteartea
- \* 19:00
- \* Sanagustin kulturgunea
- \* Azpeitia





||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	E	R	●	I	R	R	O	K	S	O	●
Z	●	O	S	●	A	E	R	A	T	I	T
T	A	B	●	A	L	●	T	R	A	B	●
N	O	N	A	K	●	A	I	R	I	R	Z
A	N	E	S	E	Z	T	A	N	A	R	●
R	●	S	I	S	T	E	●	A	I	N	A
R	A	R	I	T	E	P	E	A	Z	●	●
A	●	A	I	●	K	O	T	●	●	●	●
K	A	K	I	N	T	Z	A	K	I	N	A
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●

HITZ GURUTZATUAK

E	N	O	S	I	L	R	E
J	■	R	A	T	E	M	L
A	■	R	E	B	L	I	K
N	A	N	A	B	A	U	G
A	T	E	S	■	T	E	A
R	A	R	G	■	A	B	A
G	M	■	A	T	E	K	Z
N	I	A	Z	I	E	R	A
E	L	T	Z	A	I	L	E

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Urtarrilak 24 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN ABENDUKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?

JESUS RUIZ DE ARGANDOÑA 'KEUTTIN', FRONTOI TXIKIKO ARDURADUN OHIA

IRABAZLEA



Imanol Amenabar Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 156. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Imanol Amenabar saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK


Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

[www.catandovino.com](http://www.catandovino.com)



Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16  
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

# Asmatzaile zehatzik ez

Apustugileetako inork sailkapen zehatza asmatu ez, eta Larrañagaren apustua izan denez gehien gerturatu dena, 210 euro jaso ditu. Bi lagunentzako afaria, berriz, Maite Aramendirentzako da.  Uztarria

**J**on Larrañaga Argaiak irabazi du Uztarriaren bertso-porra, abenduaren 15ean Barakaldoko BECen jokatu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean izandako sailkapenera (Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga, Beñat Gaztelumendi eta Sustrai Colina) gehien gerturatu den apustua egin ostean. Hori dela-eta, 210 euroko diru-saria jaso du (apustu guztiekin jasotako diruaren %60). Gainerakoa, %40, Uztarria Komunikazio Taldearentzat izango da.

Apustugileetako inork ez du finaleko sailkapen zehatza asmatu, eta Larrañagaren apustua izan da finaleko sailkapenera

||| 35 lagunek hartu dute parte Bertsolari Txapelketa Nagusiko Uztarriaren porran



Jon Larrañaga.

gehien gerturatu dena. Honako apustua egin zuen Larrañagak: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Sustrai Colina eta Aitor Sarriegi.

Bestalde, Urrestillako Larrañaga jatetxean bi lagunentzako afaria zozkatu du Uztarriak parte hartzaile guztien artean, eta Maite Aramendiri egokitu zaio saria.

Guztira, 35 lagunek hartu dute parte Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaren harira Uztarriak antolatutako bertso-porran.

Uztarria Komunikazio Taldeak eskerrak eman nahi dizkie bertso-porran parte hartu duten guztiei.

||| EFEMERIDEAK |||

## 1698


**Juan Zuazolak postari zerbitzua hartu nahian eskaintza.** Gasteiztik kartak ekarri eta eramango zituen, asteazkenetan herritik irten eta larunbatean itzuliz, eta urtean 190 erreal ordainduz. Herriak onartu egin zuen.

## 1830

**Askatasunez ardoa erosi eta saltzeko** baimena eman zuten, inolako dastaketa, salneurri eta antzeko oztoporik gabe.

## 1873

**Amuko zubi inguruan Martin Bikendi hil zen.** San Agustin komentuko goialdetik guardian zegoenak tiroz jota.

 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.*

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea. ✖

## uztarria.com

Azpeitiko ataye

- Eguneko albisteak - Herritarren iritzia - Komunitatea - Bideoak
- Inkestak - Agenda - Bitxikeriak - Uztarria aldizkari guztiak
- Uztarriaren produktu guztiak - Efemerideak
- Azpeitia atala: zerbitzu publikoen ordutegiak, telefono zenbakiak, festak, hauteskude-emaitza guztiak, herriko taldeak...
- Gida komertziala: herriko denda guztien telefono eta helbideak

sartu eta parte hartu

## Egunero 3.000 bisita inguru





# Saltsak

**E**rrioxako Santiagora bidean, jatetxe bateko etxeoandreak esan zidan senarra Donostiako Azaldegi jatetxeko saltseroa izan zela. Nire aurreko pertsona harritu egin zen, ez baitzekien saltsak egiten dituen sukaldari espezializatuari 'saltseroa' deitzen zaionik. Gaitasun bitxia behar da noski, saltsak homogeneoak, finak eta atseginak izan daitezzen.

Ezagutzen ditudan saltsen artean denetik dago: bitxiak (salmorejoa), finak (bearnekoa), hotzak (mahonesa), gozoak (paulette), zuriak (kurria), ziapearekin eginak eta ilunak (borgoñakoa). Beste batzuk ere bai, nazioartean ezagunak; adibidez, romeskua –espainiarra– eta Argentinako tximiturria. Badira elikadura erregimen denetan jan daitezkenak, gaixo eta osasuntsuentzat, haur eta adinekoentzat.

Gurean gozokiak gehiago estimatzen ditugun bezala, ingelesen menpeko nazioetan nahiago dute gustu mingarria duten jakia. Halere, egokiena da saltsak adierazpen labur batez aurkeztea, ekialdean egiten duten bezala. Hala, bakoitzak jakingo du nola erantzungo dion bere sabelak edo gibelak.

Sendagile bezala, saltsarik ez dut debekatu izan, liseritzen zailak edo osasunarentzat kaltegarriak ez badira, behintzat. Argi esan izan dut beti nire kontsultan: ez jan ezer, gozarazi beharrean sufriarazten duenik.\*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

# AITOR BENGOETXEA Sanagustineko koordinatzailea



- 1. 2012ko datuak...**  
130 ekitaldi antolatu eta 24.000 ikus-entzule pasatu ziren. Kursoaren 28.000.
- 2. Zer/zein gustatuko litzaizuke ekartzea?**  
Low talde ipar-amerikarra.
- 3. Zerrek erantzuten dute ondo azpeitiarrek?**

- Azken aldiak, kontzertuekin.
- 4. Sorpresa... norekin?**  
Pertsonalki Raimundorekin. Umila eta esker onekoa da.
- 5. Kapritxo askoko 'izarrik' ekarri al duzue?**  
Ez. Herri eragile batetatik sortuak gara eta ez dugu horretarako ahalmenik.

- 6. Arrakasta handiena?**  
Asko: Berri Txarrak, Ruper, Bebe, Kalakan, Delorean, Lin Ton Taun, Raimundo...
- 8. Kostatzen al zaigu kulturagatik ordaintze?**  
Bai. Horregatik, 2014ko Kultur Bonoa atera dugu.\*  
📌 Ainitze Agirrezabala

**urke** ondo pasa san sebastianak  
Argazki eta bideo erreportajeak Salbe auzunea, 35 Tel. 943 15 12 87 Azpeitia

**ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK  
Jose de Artetxe, 17 Tel. 943-810664 AZPEITIA  
Ibai Ondo, 28 Tel. 943-830445 AZKOITIA

**lentzeria mertzeria**  
jose artetxe, 16  
nabar

**AZKOITIA**  
ERLOJU KONPONKETAK  
Arano, 5 AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**uba** aholkularitza  
zirkularitate, zirkularitate, zirkularitate  
Gestori lanak  
Finanzen administrazioak  
Gestio inmobiliarioak  
Tel: 943 157 929 Faxa: 943 157 973  
Erretzen kalea, 43 - uba.ubainform@alnet.net

**KIRURI**  
JATETXEA  
Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA  
Telefonoa: 943 81 59 08  
Faxa: 943 15 03 62

arte eta dizainu ikostegia  
**adi**  
● Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00  
● Pintura 17:30/19:00  
● Talla 19:30/21:00  
Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte guztian zabalik

**Ekain** ALBAITARI KLINIKA  
Euskal Herria, 34 20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40  
Larrialdia: 943-15 16 40



**1.** Donostiako Konstituzio Plaza, 1977ko urtarrilaren 19an. Auzpeitiarrek bezala, egun hartan atera zuten ikurriña lehen aldiz donostiarrek. **2.** 1974ko uztailaren 31n, Silvestre Otamendi alkatea buru zuen Auzpeitiko udal taldea. **3.** Bergarako bilkura. Azrgazkiaren ezkerrean, Auzpeitiko kartelari eusten, Lorenzo Soraluze. Bere atzean Iñaki Urkia agertzen da. **3.** Rafael Larrañaga eta Manuel Altuna 'Kanpaxa.'



# Jartzen aurrenak

1977ko San Sebastian bezpera aparteko poztasun eguna izan zen, ikurriña udaletxeko balkoian jarri zutelako. 🗨️📌 Ainitze Agirrezabala

**A**uzpeitian festa giro bikainekoa izan ohi da San Sebastian bezpera, baina 1977ko urtarrilaren 19 hura aparteko poztasun eguna izan zen auzpeitiar gehienentzat, ilunabar hartan, azkenean, ikurriña udaletxeko balkoitik zintzilik ikusi zutelako.

Garai hartan, udal taldean zinegotzi ziren Manuel Altuna *Kanpaxak* (Auzpeitia, 1939) eta Rafael Larrañaga *Txortanak* (Auzpeitia, 1924) ondo gogoan dute 1977ko urtarrilaren 19 hartan Auzpeitiko udaletxe aurrea jendez beteta zegoela. "San Inazio bezperan adina jende edo gehiago zegoen. Negar egin zutenak ere baziren, gerran ibilitako jendea eta". Une historiko hunkigarri hartan, ordea, ikurriña kalean ikusteak min ematen zien zenbaiti. Altunaren esanetan, "gerran ikurriñaren kontra ibilitako karlistek ez zuten onartzen. Neu karlista izana, haien ustetan ikurriñaren kontra ibilia eta, gero, udalean ikurriña ateratzearen aldekoa, karlistek ez ninduten begi onez ikusten". Auzpeitian, gainera, gauerdian beharrean ordu batzuk lehenago jarri zuten ikurriña udaletxeko balkoian. "1977ko San Sebastian bezperan, Luziano Lazkanoren hileta zen, eta parrokiara bidean haren gorpua ikurriñaren azpitik igaro zedin nahi izan zuten".

Ikurrina jartzea erabaki zenean, Silvestre Otamendik dagoeneko alkatetza utzita zekana –1972tik zen alkate eta 1977ko ekainaren 3an eman zuen dimisioa– eta haren ordeaz Agustin Pratek betetzen zituen behin-behineko alkate lanak. Pratek gazteleraz eta Imanol Eliasek euskaraz, udaletxeko balkoi nagusitik irakurri zuten udalbatzar osoak ikurriña jartzeko hartutako erabakiaren testua, behean Plaza betetzen zuten herritarren txalo zaparraden artean. Larrañagaren esanetan, behin testua leituta, "Gora Euskadi Askatuta edo Gora Euskadi esatera ez zen ausartu Prat, eta Gora Euskal Herria esan zuen". Festa handia izan zen, txistulariekin eta ekitaldiaren amaieran *Gernikako arbola* kantatuta.

## Bergarako bilkura, 1976an

Ikurriña balkoian ikusteko urratutako bidea ulertzeko, atzera egin behar da denboran. Uztarriak argitaratutako Imanol Eliasek liburu biografikoak jasotzen duenez, urtebete pasa lehenago, 1975eko azaroaren 20an, hil zen Franco, eta aro berri bati hasiera eman zitzaion orduan. Demokraziarako trantsizioa egin nahi zen garai hartan, Euskal Herriko hainbat udaletxetan irekitasun handiago



Azpeitiko udal taldea, 1974ko San Inazio Egunean, Diputazioko lehendakari Inazio Perez Arregiri -alkatearen ezkerretara- omenaldia egin zitzaioneko argazkia. Silvestre Otamendi alkatea -erdian- eta ezkerretik eskubira zinegotziak: Imanol Elias, Rafael Larrañaga, Agustin Prat, Agustin Irigoien -idazkaria-, Tomas Olaizola, Manuel Altuna, Joxe Aizpuru, Jose Inazio Elorza, Lorentxo Soraluze, Iñaki Urkia, Ignazio Uranga, Estanis Iriarte, Jabier Arakistain eta Tomas Olarte. 1972tik alkate zen Silvestre Otamendik 1977ko ekainaren 3an eman zuen dimisioa; Agustin Pratek hartu zuen haren ordez kargua. **III**. Elias

baten aldeko pausoak eman nahian zebilen jendea ez zen falta. Bergarako alkate Jose Luis Elkorok bultzatuta, lau alkatez osatutako Alkateen Taldea herriz herri bilerak antolatzen joan zen, udalak demokratizatu behararen premia nabarmenduz. Azpeitiko udal ordezkariak ere hartzen zuten parte bileretan.

Alkateen mugimendu haren ekintzarik adierazgarriena 1976ko uztailaren 21ean egin zen, Bergaran, foruen galeraren mendeurrenako egunean, hain zuzen. Bergarako Udalak Euskal Herriko gainontzeko udal guztiak gonbidatu zituen eta, guztira, 69 korporaziok hartu zuten parte. Altunak dioenez, ekitaldi hartan izan ziren Azpeitiko sei udal ordezkariak ere: *Kanpaxa* bera, Agustin Prat, Iñaki Urkia, Lorenzo Soraluze, Tomas Bereziartua eta Imanol Elias. "Bizitzan ez dut ahaztuko Bergaran bizitakoa. Ikurriña aterako genuela konpromisoa hartu genuen. Azpeitira bueltan, Aizpurutxon bazkaldu genuen".

1977ko urtarrilaren 18an, euskal herritarren eta udalen presioa zela medio, Rodolfo Martin Villa Espainiako ministroak gobernadore zibilei agindu zien ikurriñaren aurka ez jotzeko, ikurriña beti ere Espainiako banderarekin batera agertzen bazen. Hala, euskal

udalek erabaki zuten urtarrilaren 20an ikurriña jartzea beren udaletxeetan. Azpeitian eta Donostian, ordea, egun bat aurreratu ziren.

### Aro berriko lehen udal taldea

Udal hartako kideak "elkarren artean oso ondo konpontzen" zirela dio Altunak. "Eztabaidak izaten genituen, baina ondoren kafea hartzera edo afaltzera joaten ginen elkarrekin Txokoneran. Jabier Arakistainek antxoa goxokak

prestatzen zizkigun". "Ni baratzuri-zoparekin akordatzen naiz", dio Larrañagak.

Lehenengo udal hauteskundeak egin eta aro berriko aurreneko korporazioa osatzeko -1979an osatu zen lehen udal korporazioa herrian- presioa egiteko asmoz, 1978ko ekainaren 29an, zinegotzi kargutik euren dimisioa eman zuten *Kanpaxak*, Lorenzo Soraluze, *Txortanak*, Inazio Urangak, Imanol Eliasek, Jabier Arakistainek eta Estanis Iriartek.✳

## Gertaera latzak eta hunkigarriak

**III** Franco diktadorearen heriotzaren aurreko eta ondorengo lehen urteetako udal talde hari une historiko zailak bizitzea egokitu zitzaion. "Gertaera latzak eta hunkigarriak bata bestearen atzetik" gertatzen zirela dio Manuel Altuna *Kanpaxak*. Angel Otaegi nuarbetarrari ezarri zioten heriotza zigorra eta fusilamendua, kasu. Otaegi 1974ko azaroaren 18an atxilotu zuten, urte hartako apirilaren 3an Azpeitian Gregorio Posadas guardia zibilaren hilketan parte hartzea leporatuta. 1975eko abuztuaren 29an, heriotza zigorra ezarri eta fusilatuta hil zuten, irailaren 27an. "Heriotza zigorraren

berri jakin genuenean, erabaki hura atzera botatzeko eskatzeko mozioa aurkeztu genuen lau zinegotziak: Rafael Larrañagak, Lorenzo Soraluze, Imanol Eliasek eta nik, eta udalbatzarreko osoko bilkuran mozioa aurrera atera zen. Garai hartarako, udalaren aldetik oso jarrera gogorra izan zen erabaki hura. Gogoratzen dut, gobernadore zibilak Silvestre Otamendiri telefonoz deitu ziola, hari halako akordiorik ez bidaltzeko esanaz. Silvestrek, ordea, erantzun zion akordioa hartuta zegoela eta bidali egingo ziola". Azpeitiko Udalaren eskaerak, ordea, ez zuen nahi bezalako erantzunik jaso.✳

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Tebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	BESTERIK	
EAJ	81 55 70	Xoxoteko aterpea	58 10 07
Sortu	15 72 00	Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	
EA	81 00 11		943 08 06 88

## FARMAZIAK (URTARRILA)

### EGUNEZ

1-8-16-21-25-26-31	2-6-17-27	3-9-13-18-19-23-28	4-5-10-24-29	7-11-12-14-20-22-30
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811949	943 815974	943 811274	943 080258	943 811350

### GAUEZ

6-17-27	7-11-12-14-30	8-16-31	9-13-18-19-28	10-15-29	1-2-21-22	3-23	20-25-26	4-5-24
Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 815974	943 811350	943 811949	943 811274	943 080258	943 852989	943 851235	943 850660	943 851966

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Urtarrilaren 29an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

## ORDUTEGIAK

**UDALETXEA** || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOIA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## ERABILITAKO PILAK.

Hainbat edukiontzi daude herrian erabilitako pilak –alkalinoak nahiz botoi-pilak– jasotzeko. Argazkian, Betharrametako erakusketa aretoaren ondoan pilak jasotzeko dagoen ontzia.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07


|| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarrria.com/azpeitia/](http://www.uztarrria.com/azpeitia/)  
autobusak

# IGOR BOO

danborjolea

“gauerdian,  
plazako unea  
berezia dun oso”

Azken hamabost urtetan hutsik egin gabe jo du danborra Sansebastianetan. “Emozio handiz bizi” duela dio.  A. Agirrezabala

**A**urtengo sansebastianetan ere ez duk hutsik egingo, ezta? Ez, horixe! 24 urte ditinat eta bederatzirte nizkinanetik ateratzen naun. Lehenbizi, Betharram ikastetxetik; gero, Itsasiko gazteen taldearekin eta, orain, helduekin. Down sindromedun danborjole bakarra naun.

**Sansebastian bezpera gerturatzeko doan bezala, urduri jartzen al haiz?** Kontentu egoten naun danborradan jotzeko. Sansebastian bezpera baino aste bete lehenago hasten naun etxean diskoa jarri eta danborra jotzen entrenatzen. Gero, danborradaren aste horretan, Izarraitz frontoian hiru egunetan entseguak izaten ditun eta haietara ere joaten naun, hutsik egin gabe!

**Danborradan irteteko eguna nolakoa izaten duk?** Arratsaldean Itsasiko taldea elkartu eta tragoxka batzuk hartzen dizkinagu. Egun horretan, ordea, garaiz afaltzen dinagu, 19:30ak alderako hasten gaitun tripa betetzen, Kiruri jatetxean. Zizka-mizkak lehenbizi: urdaiazpikoa, otarrainxkak, kroketak eta txibiak. Ondoren, azpizuna eta postrea jan eta Itsasiren lo-

kalera joaten gaitun janztera. Danborrada bukatzean lokalera joaten gaitun aldatzera eta xanpaina edanez pastelak jaten ditinagu.

**Danborradaren ibilbideko zer zati duk gustuko?**

Gauerdian, plazan talde guztiak elkartuta danborra jotzen dugun momentua berezia dun. Gainera, hiru anai-arrebok elkarrekin jotzen dinagu danborra Itsasi taldetik. Beno, aurtan Ruben anaiak huts egingo din, Ibizan zagon, lanera joanda.

**Danborrada ikusten kale ertzean egoten diren familiakoe, lagunek eta ezagunek animatzen al haiz?**

Bai, asko animatzen naute, eta begi-zeharka begiratzen zient, baina ez zient kasurik egiten; nik nirean jarraitzen dinat, danborra jotzen, serio-serio.

**Eguraldi txarra baduk etxean geratuko al haiz epelean?**

Ni ez naun eguraldi txarragatik sekula etxean geratu izan. Duela pare bat urte euri asko egin zinan, eta katarro handiarekin nengonan, baina halere atera egin nindunan. Ikargarri gozatzen dinat.✘



1. Igor Boo Itsasi Dantza Taldetik danborra jotzen, 2005eko haurren danborradan.  
2. Ikasle garaian, Betharram ikastetxetik.  
3. Ruben eta Irune anai-arrebekin, 2008an.



# Gento

**J**exux Mari zuen izena, baina *Gento* zen goitizenez. Benetan bazen Gento bat, Real Madrid futboleko taldean jokalaria abila nonbait, ezker hegalekoa. Gure Jexuxmari ere futbolaria izan, eta ezker, eta saiatua... eta, horrela, nik ezagutu nuenerako Gento zen gure Jexux Mari. Gu baino handiagoa zen, adinez urte bat besterik ez, baina gu baino sendoagoa zen gorputzez, eta indarra ere erregalatzeko lain gure lagunak. Eta balientea futbolean. Eta mutil ona. Zintzoa. *Txintxue*. Gure Gentok bazituen dohainak. Estudiatzeko garaian, ofizioa aukeratu zuen, edo ofizioa ikasteko bidean jarri zuten gurasoek, gu ikasten ari ginenean ere bera lanean hasi zen eta. Goiz xamar, iruditzen zait. Axkoi-tian ari zen, 'profesionalean', Lanbide Heziketan, eta beti futbolean. Eta Lagun Onak Txikian, ekipoaren sasoi onenean. Atotxan jokatu zuten Gipuzkoako finala, Realaren kontra, eta bi eta huts galdu. Ordurako, Donostiako jendea akordatuta zegoen gure herrian futbolari onak bazirena. Esate baterako, talde hartatik irten zuen *Larrak*, Loiolako Juan Antonio Larrañagak. Jokalari on gehiago ere baziren, baina ez dakit zein bide egin zuten, noraino ailegatu ziren.

Orain dela gutxi, aurreko hileko Uztarrarian ikusi dut Gento. 16 urte zituen orduan nire lagunak. Orain, berriz, 56 urte dituela jakin dut, eta Corrugadosen jardun duela lanean bizi guztian. Martxialen. Azpeitian fabrika itxi dute, baina Angolan ireki! Haraxe doazela zazpi lagun, hango lantegia martxan jartzera, hango jendeari erakustera. Ez legoke gaizki, GKE balira. Eta bizi guztia herrian egindako mutil gizondua Afrikara. Ez, hala ere, edozein lekutara. Angolara. Alferrik da kasu hauetan bateko eta besteko entziklopedia, telebista eta Internet kontsultatzea. "Halako erregimen politikoa... halako ekonomia... halako geografia... halako gizartea...". Bertara joan arte ez du jakingo Gentok, paper bustia da hemen Angolaren gainean leituko duen



|||||||||||||miel a. elustondo|||

## |||Lanean beltz jardunda baino lagun gehiago egingo ditu Angolan ere futbolean Gentok

dena, edo gehiena. Petrolio eta diamanteak. Jogurtak 3 euro, hanburgesak 20. Hogeitaka urtetan izan duten gerra. Gaitz eta gaitasunak... "Ikus eta sinets" da esaera, eta hara ailegatu arte ez du asmatuko. Zer esan die, bada, moja urrestildarrak, ez dutela problemarik izango lanera baldin badoaz. Eta, lanaz beste, zer egin behar du bizi guztia lanean jardun duenak? Aukeran, hobe luke hemendik futboleko baloia eraman, eta futboleko elastiko batzuk. Lanean beltz jardunda baino lagun gehiago egingo ditu Angolan ere futbolean Gentok. Zazpi lagun omen doaz. Hortxe ekipoaren erdia. Sartu bertan bertako dozena erdi bat lagun, hasi builaka euskaraz eta portugesez eta umbunduz, eta konponduko da Gento. Biziko da ondo, hiru hilabete eta erdi pasatu eta atzera etxera etorri bitartean. Akordatzea ez ahaztu, Jexuxmari! Eraman baloia, Gento!\*



## ORDENAGAILUEN SALMENTA MOTA GUZTIETAKO ORDENAGAILUEN KONPONKETAK



GEURE HIZKUNTZAN LAN EGITEKO,  
NEURRIRA EGINDAKO  
EUSKARAZKO PROGRAMAK DITUGU  
(Autonomo, enpresa txiki, denda,  
taberna, jatetxe, akademientzat...)

Iberotarren plaza 8, behea 20730 Azpeitia Tel.943 81 51 51

[www.softekin.com](http://www.softekin.com)


# landeta

brikodenda



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA  
tel. 943 81 25 66 - mug. 607 75 88 01 - [landetabrikodenda@hotmail.com](mailto:landetabrikodenda@hotmail.com)

[www.landetabrikodenda.com](http://www.landetabrikodenda.com)



# Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50



neguko merkealdia



horzkari  
hortz osasun klinika



## Dentistaren beldur?

Horzkarin 'sedazio kontzientea'  
teknika aurreratua dugu zure eskura.  
Ziurtasun eta erosotasun osoa, minik gabe.

Iberotarren plaza, 4 behea  
20730 azpeitia gipuzkoa  
t. 943 81 44 50  
f. 943 81 50 52

**URTE BERRI ON!**

[www.grupohorzkar.com](http://www.grupohorzkar.com)